

## ZESUMA

### Junkeraren "Etxea"



Nire "Aitaren etxea defendituko dut" zioen Gabriel Aresti poeta bilbotarrak eta Kepa Junkerak ere badu nahiko lan, Jauriaritzak bere proiektu bat 702.000 euroekin lagundu duela eta, musikaren alorrean sekulako zalaparta sortu baita. Hainbat musikaririk planto egin dute eta manifestu bat sinatu, kultur politika honen kontra. Bestalde, Kepa Junkera bera minduta eta harrিতuta agertu zen zalantzak eta uste txarrak argitzeko antolatutako aurkezpenean. Proiektu zabala dela adierazi zuen, hainbat hehetasun emanez, eta diru-laguntza hori gabe bertan behera geratuko litzatekeela. Lau disko eta film dokumental bat osatuko ditu Kepa Junkerak Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzari esker.

Edozein kasutan, berri hau hautsak harrotu eta bazterrak nahasteko lain izan da, eta, ildo honetan, euskal musikaren panoraman eta oro har euskal kulturaren alorrean dabilen hainbat lagunek beren iritzia eman dute ahoz gora. Galbahea atalean egoeraren

isla diren hainbat adierazpide bildu ditugu, baina ez alde zuzeneko proiektu honek egindako ibilbidea erakutsi gabe:

- **Urriaren bukaera: Etxea diskoaren agerrera**

Kepa Junkerak zenbait urtetan garatzeko asmoa duen egitasmoaren lehen urratsa eman zuen. Iberiar Penintsulako artistek euskarazko abesti tradizionalak abestu zituzten disko bikoitz horretan.

- **Abendua: Etxea disko-liburua**

Diskoan parte hartu zuten artistei eginiko elkarrizketak bildu ditu oraintsu plazaratu duen disko-liburuan. Edizio berezia eta mugatua da.

- **Abenduaren 22 eta 23an: Etxea diskoaren zuzeneko aurkezpena**

Bi egun hauetan Bilboko Arriaga Antzokian izan dira kontzertuak, eta lortutako dirua Diamond Child erakundearentzat izango da.

- **Gabon gaueko emanaldia**

Herri askotako abeslariak osatutako abesbatza batek Etxea disko abestiak kantatu ditu eta saioa ETB-n eman dute.

## GALBAHEA

- **Ainhoa Ansa (Gipuzkoako Kantu Txapelketako koordinatzailea):**

"Trikiti pieza asko aukeratzeko dira Kantu Txapelketarako. (...) Guk susmoa dugu Musika Eskoletan euskal kantuari beharbada ez ote zaion behar adinako garrantzirik ematen. Txapelketa hau aitzakia polita izan liteke Musika Eskoletan euskal musika txertatzeko".

(El Diario Vasco, 2008-10-20)

- **Kepa Junkera (musikaria):**

"Proiektuan gehien entzuten dan musika-tresnea pianoa da eta musikariak oinarri horren ganean kantatzen dabe. Muga sozio-politikoak apurtzeko helburuagaz, diskoan parte hartzen daben profesionalak estatu mailakoak dira. Hainbat arlotako jentea konbidatu dogu, batzuk ezagunagoak, besteak gutxiago, baina danak garrantzitsuak".

(Bizkaia!, 2008-10-09)

- **Ruper Ordorika (musikaria):**

"Euskal kantua modernizatzeko horretara eraman behar baldin bada, eta interkulturalitatearen izenean horrelako gauzak egin behar baldin badira... ba... baten batek ez du deus ulertzen. Ez da tanta bat baizik, ozeano batean. Benetan auzitan dagoena da, nola kudeatzen diren gauzak kulturaren alorrean. Zein modu arinean".

(Hernaniko Kronika, 2008-12-22)

- **Joseba Tapia (trikitilaria):**

"Kantagintza txikitua dago...Eta euskararen onerako hor zeharreko erdaldunak euskaraz kantari jarri nahi dituenak ez dio mesederik egingo: kantagintza ariketa friboloa bihurtua zuten jadanik, eta orain euskara bera (...) Eta hala dagoelako sortu da orain estilo baskoaren alternatiba: ez da beharrezkoa geuk euskaraz egitea, horretarako dauzkagu munduko artistak gure subentzioen zain".

(Berria, 2008-12-19)

## KALEJIRAN

• Hona hemen Kataluniatik datorrigun berri bat. Sartu [www.lamaredelsous.com](http://www.lamaredelsous.com) helbidean, eta Kataluniako akordeoi diatonikoari buruzko hainbat informazio aurkituko duzu. 2008ko urrian jarri zuten guztien begi-bistan, eta, besteak beste, akordeoi diatonikorako bildutako partitura-sorta ikus dezakegu. XX. mende bukaerako eta XXI. mende hasierako hainbat akordeoi-jotzaile katalanek konposatutako doinuak aurki ditzakegu, musika-generoaren eta beren zailtasun-mailaren arabera sailkatuta.

# ALTZA PORRU!

2008ko abendua - 2009ko urtarrila / 31.zenbakia

EHTE Alameda 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28  
[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) / [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418/01

## FABOREZ 3



Faborez bildumako **hirugarren diskoak 2009ko udaberrian** ikusiko du argia. Urte berriaren etorrerarekin batera hasiko dira disko berriak grabatzen, eta lana udaberri sasoirako kalean egotea espero da.

Faborez bildumaren ohiko ardatzetan oinarrituko da datorren lan hau ere. Batetik, **errepertorio tradizionala** ezagutarazteko helburuari erantzun zaitzaio. Bestetik, pieza tradizionalak jotzen **jotzaile gazteak** arituko dira, eta, azkenik, **diskorik ez duten bikoteei** emango zaie grabatzeko aukera. Hiru zutabe horiek osatzen dute Faborez bildumaren oinarria, eta ez dira, inolaz ere, ahaztekoak.

Aurrerapen gisa, hona hemen disko berriaren parte hartuko duten musikarien zerrenda.

- Julie Mary eta Thierry Bizkarry
- Koldo eta Esti
- Lurdes eta Aitor Alkorta
- Mundiñano anaiak

## BATZAR NAGUSIA AIAN, OTSAILAREN 28AN

Urtero bezalaxe, **EHTeren batzar nagusia** izango da urte berriaren lehen hiruhilekoa bukatu aurretik. **Otsailaren 28an, larunbata, Aian** egingo da batzar nagusia eta hauxe da hitzordua horretarako prestatutako gonbita:

- 11:00: Aiako plazan hitzordua
- 11:30: Batzar nagusia
- 14:00: Bazkaria

Urteroko dinamikari eutsiz, batzar nagusirako aurreikusitako gai nagusiak, berriz, honako hauek dira: **2008ko balantzea, 2009ko plangintza onartzea, eta Zuzendaritza berria aukeratzeta**. Ikusi bezala, gai mamitsuak, urteari ongi ekin eta elkarteari behar bezalako martxa emateko. Hori dela eta, gonbidatuta zaude bileran parte hartu eta zure iritzia ematera.



## TRIKITIXA PLAZATIK ANTZOKIRA



Spraio taldeko dantzariak Getxon egindako emanaldiaren une batean

EHTEK zazpigarren aldiz ospatu duen **Nazioarteko Trikitixa Jaialdiaren kariaz, Donostiako Victoria Eugenia Antzokia** lepo bete zen joan den **azaroaren 22an. Bezperan Getxon** izan zen emanaldia. Jaialdiaren **lelo nagusia dantza** izaki, hainbat kulturatako dantza eta erritmoek giroa eta ikus-entzuleak bizi-bizi jarri zituzten. Nazioarteko erromeria koloretsu, jendetsu eta alaia izan zela irakurri dugu non edo non, eta horrexek definitzen du ondoen egun horretan bizitakoa.

Ia bi orduko emanaldia gozagarria suertatu zen bertan bildutakoentzat. Ekitaldiaren diseinu zainduari esker, eta talde bakoitzaren erritmo bizi eta alaiei esker, saioa arin bezain gustagarria izan zen. Nolabait esateko, saioko sei tarte bereiz genitzake: Galiziatik etorritako jotzaileak, Bizkaiko Dantza Taldea, Italiako Menta Fresca taldea, Euskal Herriko Sasi Dantza, Irlandatik hurbildutako Sprai

dantza plazer huts bilakatuta, ikusle gazte zein heldu animatu zituen euren erakustaldiak.

Dantzarekin jarraituz, **Irlandako Sprai taldeak** pub irlandar batean sartu zuen publikoa, eta, folk doinuak lagun, herrialde honetako errepertorio zabalarekin gozaziti zituen antzokian gero eta berotuago zeuden ikus-entzuleak. Taldekideek musika instrumentu ugari jotzeaz gain, dantzarako ere aparteko abilezia dute.

Azkenik, jaialdiari amaiera emateko, **Ipar Euskal Herriko** hamabost bat gaztek osatzen duen **Zpeiz Mukaki taldea** taularatu zen, eta euskal dantza tradizionalak eskaini zituzten, 1980ko eta 1990eko hamarkadetako musikarekin uztartuta; hau da, euskal dantza tradizionalako pausoak rock eta punk musikaz lagunduta. Merezitako bukaera zirraragarria, saio bikain eta berezi batentzat.

taldea eta Ipar Euskal Herriko Zpeiz Mukaki taldeak sortutako uneak, hurrenez hurren.

**Galiziako Pandeiro Furado taldeak** eman zion hasiera emanaldiari. Laukote honek euren herrialdeko muñeirak eta jotak eskaini zituen, kantu, pandero, perkusio eta gaitaz lagunduta. Dantzariak, berriz, dantza bikainak erakutsi zituzten.

Ondoren, Arratiako eta Gorbeialdeko doinuen txanda izan zen, **Igorreko Arantzarte dantza taldearen** eskutik. Bi pandero-jotzaile, bi trikitilari eta hiru albokari tartean, Arratia aldeko doinuek indar berezia hartu zuten hiru albokariaren babesean. Arratiako erara dantzatzutako fandango bizi-bizia ere dantzatu zuten taldeko bi kidek, hanka-joko sinesgaitzean.

**Italia Hegoaldeko Menta Fresca Danza taldeak** Campania eta Puglia eskualdeetako tarantela eta tammurriatak ezagutzeko aukera eman zuen. Lehendik ere izanak ziren laukote honetako soinu eta pandero joleak Donostian, 2001en hain juxtu, eta ikus-entzuleak harritzeko ahalmena ezaguna bagenuen ere, ez zuen hutsik egin.

Berriz ere Euskal Herrira salto egin eta jaialdirako sortutako **Gipuzkoako Sasi Dantza taldeak** baserri giroko erromerietako dantza erakustaldia egin zuen. Alkorta anaia-arrebek, trikitixa eta pandero lagun, musika jarri eta hiru bikotek erromerietako dantzatzeko era erakutsi zuten. Estilo librean,

## Disko berriak

### Juan Jose Estanga: MALLOTIK BEGIRA OROITZAPENAK BURURA

Hauxe da Juan Jose Estangaren **lehen diskoa**, trikitixari lotuta hainbat urte luze eman ostean. Betidanik izan du trikitixa gustuko eta 14 urterekin hasi zen bere kasa ikasten, oparitutako trikitixa bat zela medio. Donostiara etorritakoan, hantxe ezagutu zuen bere emaztea izango zena eta baita haren osaba Euleterio Tapia ere. Tapiari esker, pieza berriak ikasten hasi zen.

Trikitixazale amorratua izaki, bere seme-alabei eta ikasleei ere maitasun hori transmititzen ahalegin berezia egin du. Eta, azkenik, makina bat bazter alaitu ondoren, diskoa grabatzeko unea iritsi dela begitandu zaio. Disko honetan aurkituko dituzu bere **gazte-**

**tako eta betiko piezak**, baita herriaren omenez egindako kantak ere, diskoaren izenburua lekuko: *"Mallotik begira oroitzapenak burura"*. 13 abestiz osaturiko disko hau bere ibilbidea ongi asko definitzen duen lana da.



### Korrontzi: GETXO

**Bizkaiko boskoteak** irailean Getxo Folk jaialdian grabatutako **zuzeneko diskoa eta DVDa** aurkeztu du, beren bigarren lana. Korrontzi 2004an sortu zen eta taldeak 2006an kaleratu zuen lehenbiziko diskoa. Bidean hainbat sari lortu dituzte eta **folk zirkuituaren parte** bihurtu dira. Lan honen bidez, Korrontziren zuzenekoa helarazi nahi dute, jendeak etxean lasai asko goza dezan.

Hogeita hiru abestik osatu dute Getxo izeneko DVDa. Korrontzik musikari ezagunen laguntza izan du diskoa egiteko. **Mikel Urdangarin, Galiziako Faltriqueira taldea, La Musgañako Jorge Arribas, Susana Seivane eta Xabi Sarriak** partu hartu dute grabazioan. Lagun asko dituzte han-hemen; 2008an emandako 60 kontzertuetatik 35 kanpoan izan dira, eta horrek badu eragina beren harreman-sarean. Maya anaien dantza-emanaldia ere ikus daiteke DVDan.

Korrontzik euskal folkaren mugak hautsi dituela esan beharrik ere ez dago. Lehenbiziko diskoa Espainiako Nubenegra diskoetxeak argitaratu zuen eta horrek



Euskal Herrikan kanpo aritzeko aukera eman zien. Bigarren lan hau, ordea, **Baga Biga** diskoetxearen **babesean** atera dute. Hona hemen beste aukera bat, tradizioan sakondu eta freskotasun ukitua ematen abila den talde baten eskutik: zuzeneko diskoa eta DVDa, plazatik etxera.